

Umore grafikoa Hego Euskal Herriko egunkarien on eta off line edizioetan (2019). Gerturatze deskriptiboa

Aitor Castañeda

UPV/EHUko Kazetaritza Saileko irakasle-doktorea.
Tokiko prentsa-kolaboratzaile eta umorista grafikoa.

Ikerketa labur honetan, Hego Euskal Herrian audientzia gehien duten informazio orokorreko egunkarietako umore grafikoa aztertzen da. Metodo sistematiko eta deskriptibo baten bidez, *El Correo*, *El Diario Vasco*, *Deia*, *Diario de Navarra*, *Noticias de Navarra*, *Berria* eta *Gara* berripaperen bertsio digital zein paperezkoan diharduten marrazkilarien lana aztertzen da. Emaizta bezala, euskal prentsaren umore grafikoa zertan den eta tokiko egunkariak nola kudeatzen duten ere ikusten da, eta ondorio modura umoreak gure prentsan duen osasun ona nabarmentzen

GAKO-HITZAK: Umore grafikoa · Tokiko prentsa · Euskal prentsa · Euskal marrazkilariak.

Graphic humor in on and off line editions of the newspapers of the Basque Autonomous Community and Navarre (2019). A descriptive approach

The aim of this brief research is to investigate the graphic humour of the on and off line newspapers of the Basque Autonomous Community and Navarre. Graphic humour, is analysed here using a systematic and descriptive method. Cartoons of even digital or printed editions of *El Correo*, *El Diario Vasco*, *Deia*, *Diario de Navarra*, *Noticias de Navarra*, *Berria* and *Gara* are studied. Consequently, and apart from giving Basque cartoonist some academic prestige, it can be seen the situation and management of the graphic humour on the local press. As a result, the good health of graphic humour of the Basque press is showed.

KEY WORDS: Graphic humor · Local press · Basque press · Basque cartoonists.

1. Sarrera. Aurkezpena eta xedeak¹

Zalantza barik esan daiteke bukatzen ari den hamarkada honetan prentsako umore grafikoak inpaktu handia izan duela. 2010 aurretik jazotako zenbait gertakari ahaztu gabe —adibidez, 2005ean Danimarkan jazotako atentatua *Jyllands Posten* egunkariaren kontra (Mahomaren karikaturak zirela eta ez zirela) edo 2007ko *El Jueves* astekari espainiarraren bahiketa Monarkiaren satira zela medio—, urte hartatik hona umorearen mugak eta adierazpen-askatasunaren inguruko eztabaidak bor-bor izan dira. Ekialdean aspaldi hasitako eztabaida akademikoa ere bada, adibidez Nikahang Kowsar marrazkilari irandarrak *Social Research* aldizkarian argitaraturiko testigantza (2012), non bere esperientzia pertsonala aiatolarekin kontatzen duen, zentsura gorabehera.

Kowsarren bidetik arlo akademikoari so, umore grafikoarekiko interesa hazi baizik ez da egin. Urrunago joan barik, 2010etik honako tartean, eta Espainian bertan, ia 50 bat argitalpen akademiko plazaratu dira prentsako umore grafiko hizpide (Fundación Dialnet, 2019), bai eta zortzi bat tesi ere (MECD, 2019). Gurera etorrira, eta unibertsitate-esparruari begira, aipagarria da oso Euskal Herriko Unibertsitateko *Emanizeneko* ikerketa-taldeak sustatutako *Tirabirak* erakusketa ibiltaria, 2016an, non euskal gatazka Euskal Herriko eta Espainia/Frantziako egunkarietako marrazkilarien obraren ikuspegiatik aztertzen den. Ez da, ordea, gatazka tratatu duen erakusketa bakarra; izan ere, Akademiatik kanpo Fernando Buesa Fundazioak *Bakearen aldeko eta biolentziaren aurkako binetak (1977-2002)* erakusketa aurkeztu zuen Gasteizen, estatu-mailako eta tokian tokiko tirada handieneko egunkarien marrazkilarien 200 zinta erakutsiz (FBF, 2015).

2015a izan da zalantza barik umore grafikoari begira gertakari zalapartatsuena eman duen urtea: urte hartako urtarrilean gertatuko da Parisen aski ezaguna den *Charlie Ebdó* astekari satirikoaren kontrako atentatua. Gertakari horren eraginpean *H28* izenburudun online aldizkari ‘sa(re)tirikoa’ sortuko da, Asisko Urmeneta, Marko Armspach eta Patxi Huarteren ekimenez eta Pirinioen bi aldeak euskal marrazkilariak batuz (H28, 2016). Urte bereziak beraz, erakusketa eta Akademiaren mugimendua dela-eta: aipaturiko argitalpen eta tesietatik, lan gehienak 2015 eta 2016 artekoak dira.

Hau guztia jakinda, eta kontuan hartuta hamarkada bukatzeaz dagoela, ez dago soberan ikustea gure esparru geografiko honetan egunkarietako umore grafikoak zertan den. Hots: une honetan euskal egunkarietan umore grafikoak zer presentzia daukan, bai haien paperezko edizioan bai edizio digitalean.

1. Artikulu hau, Euskal Herriko Unibertsitateko ikerketa-talde honen parte da: Euskal Nazionalismoa Ikuspegi Konparatuaren Arabera (GIU 17/005).

1. taula. Umore grafikoaren produkzio akademikoa Espainian, 2010eko hamarkadan. Teseo.

	Artikuluak	Tesiak	Kapitulua	Liburuak	
2018	1	1	1	0	3
2017	1	1	0	0	2
2016	4	5	1	0	10
2015	6	5	0	0	11
2014	0	2	0	0	2
2013	4	0	0	1	5
2012	4	1	0	0	5
2011	3	1	1	0	5
2010	2	1	2	0	5

Bereziki interesgarria da alor digitala, gaur egungo ingurune multimedialak umore honi eman diezazkiokeen posibilitate adierazkor guztiengatik. Ikus adibidez Jonathan Dube-k (2000) aipatzen dituenak, Ainara Larrondoren hitzetan (2007: 46) Internetek kazetaritzari eskaini diezazkiokeen forma narratiboei buruz:

Stories can be told entirely through animation. This is a great way to tell stories visually when there are no photos or video [...]. Use animation to bring newspaper infographics to life, when you want to recreate an event that has motion or action, to show how something happened or works. Or use it for humorous stories, such as editorial cartoons.

Kasu honetan animazioa aipatzen du Dubek, baina irudika bedi adibidez komiki-zinta bat paperean ikusi eta bere euskarri digitalean bineta batetik bestera pasatzeko posibilitate interaktiboa. Edo istorio bat ale batetik bestera osatzekoa. Transmedia-posibilitateei buruz ariko ginateke beraz, eta artikulu honen interesekoa da jakitea euskal berripaperek nola kudeatzen duten umore grafikoaren edizio digitalean.

Horrela, hauek dira zerrendan bete nahi direnak:

1. Euskal egunkari bakoitzean argitaratzen duten marrazkilari kopurua identifikatzea.
2. Marrazkilarion kokapena zehaztea egunkariaren edizio fisikoan zein digitalean.
 - Azken horren kasuan, eta hala izango balitz, haien posibilitate multimediatikoak ere deskribatu nahi dira, ingurune zibernetikoari dagozkionak.
3. Egunkariaren bi edizioen arteko konparaketa egitea umoreari ematen dioten garrantziari dagokionez.

«Garrantzi» esaten denean, umore grafikoko pieza bat egunkarian toki pribilegiatuetan edo deigarrietan agertzeko posibilitateari buruz egiten da, alegia, idatzizko edizioen kasuan, eskuineko orrialdeetan edo azaletan; edizio digitalen kasuan, sarrerako orrian edo/eta ikusgarri dauden guneeetan.

1.1. Hipotesi edo abiapuntua

Lerro hauek idazten dituenak 2018an ikerlana plazaratu zuen *Latina* aldizkarian euskal periodikoen kalitate infografikoari buruz (Castañeda, 2018). Infografia informazio-aurkezpen diagramiko gisa hartua, argi dago kazetaritza-genero gisara har daitekeela, eta ikuspuntu horretatik informazioa nola transmititu izango litzateke haren kalitatearen oinarria (Valero-Sancho, 2001). Alta, eta gerora ikusiko den bezala, umore grafikoak ere generotzat har daiteke kazetaritzan —iritzizkoa, hori bai—, baina infografikoaren kasuan berebiziko garrantzia dauka ikusizko kalitateak. Bai eta materia grafikoaren antolakuntzak ere, adierazten duenari heltzeko. Horrela, zera ondorioztatu zen: euskal periodikook —kasu hartan Euskal Autonomia Erkidegokoak bakarrik ikertu ziren— kalitate inportantea zuten infografikoak garatzen zituztela, gutxienez euren idatzizko edizioetan, ikertu zirenak.

Horrela, suposatzen da hemen aztertuko diren euskal egunkarien umoreak, grafikoak den aldetik, inportantzia handikoa behar duela kazetan, alegia: pribilegiozko tokia hartuko duela, egunkariko lehen orrialdeetan edo edizio digitalen *home page* direlakoetan, eta egunkari orok izango dituztela euren marrazkilari propioak, bai paperean bai sarean.

2. Umore grafikoak zer den

Umore grafikoak definitzeko, bi terminoren arteko binomioa ulertu behar da: ‘umore’ eta ‘grafiko’. Umorea zer den, buruhauste handiak emango lituzke definizio oso bat hemen proposatzeak, dagoen espazioa eta ikerlanaren helburuak kontuan hartuta. Ordea, komeni da zertzelada batzuk ematea, eta horretarako Richter filosofo alemaniarren teoria estetikoari buruzko entseguaren azalpenak ekarriko dira, besteak beste.

2.1. Umorea zer den

Aitzitik, aipatu beharrekoa da umorea bere horretan definitzea ez dela erraza, zeren bere konplexutasun osoa definizio bakar batean itxiz gero, fenomeno gehiegi mugatzen baita. Halaber, umorea zer den diziplina anitzetatik ikertu da, berorren definizio definitiborik lortu gabe:

A tratar de saberlo se han dedicado en el transcurso de la Historia filósofos, literatos, poetas, psicólogos, médicos y humoristas. Nadie ha zanjado el asunto. Cada uno aporta su peculiar visión, y entre todos un maremágnun inabarcable (Conde, 2005: 18).

Ez da artikulua honen asmoa Jose Luis Condek ekarritako gremio orotan umoreari buruz zer esan den arakatzea. Bai, ordea, aurretik aipaturiko horiek erreferente

hartzten dituzten aurrekariei begiratzea, zeren Condek berak ez baitu definizio borobilik proposatzen. Abiapunturik, ordea, ematen du: umorea ez dela ez barrea, ez komikotasuna, ez ironia, azken horiek umorea garatzeko erreminta bihur badaitezke ere. Horrela, Antzinate Klasikotik erator daitezkeen lanek barrea eta komikotasuna tratatzen dituzte, adibidez Aristotelesen *Poetikak* (K.a. 335-323). Bertan komediari (ere) heltzen zaio, irria eragiten duen behe-mailako antzerki-genero gisa, non ikusleak barre egingo duen bere gizartearen arauen arabera «itsusia» dena ikustean (Aristotle, 2008). Planteamendu horren harira, komikoa «barre eragiten duena» izango da, gizartearen zelanbaiteko kastigua ere bai, mendetan zehar ere Laurendi Joubert mediku frantziarrak (1579/2002) edo XX. mendeari begira Henrike Bergson-ek mantentzen duten planteamendua.

A man, running along the street, stumbles and falls; the passers-by burst out laughing [...]. Perhaps there was a stone on the road. He should have altered his pace or avoided the obstacle. Instead of that, through lack of elasticity through absentmindedness and a kind of physical obstinacy, as a result, in fact, of rigidity or of momentum, the muscles continued to perform the same movement when the circumstances of the case called for something else. That is the reason of the man's fall, and also of the people's laughter (Bergson, 1915: 8-9).

Horrela, barrea komikotasunak proposatzen duen eragin bat izan daiteke, baina ez, ordea, umorea. Azken fenomeno horrek forma hartzen du XVIII. mendean idazle ingelesak literatura-genero jakin bati *humor* deitzen hasten direnean, hots, ironia gailentzen den horretan (Fernández de la Vega, 2002: 39). Horrela, komunikatzen denaren bestelako esangura bat proposatzen duen figura erretoriko hori, ironia, gailentzen den diskurtso bat umoristikoa izan daiteke, baldin eta inoren zapalkuntza edo seinalatzea bilatzen ez badu. Horrela, pertsonaia umoristiko baten aurrean inor ez da gaintik sentitzen: harekin identifika daiteke, eta haren miseriak norberarenak bailiran hartu, gizarte-arauak gorabehera:

En este movimiento no me siento superior y distanciado respecto al personaje animalesco que actúa contra las buenas reglas, sino que empiezo a identificarme con él, padezco su drama y mi carcajada se transforma en sonrisa (Eco, 1980).

Hori horrela, konbentziorik badago —orain arte izendatutako autore orok behintzat hala egiten dute— Juan Pablo Richter alemaniarra umoreari buruz tratatu bikainena egin duen autore gisa seinalatzeko. XVIII. mendearen amaieran idatzitako teoria estetikoaren ikerketan, Richterrek gizakia bere txikitasunaz jabetzean lor dezakeen efektu gisa ulertzen du umorea, bizitzaren aurrean hartzen den jarrera.

Richterren aburuz, gizakiaren arrazoinamendua, mundu amaikorra besterik ezagutzen ez duena, infinituaren kontzepzioarekin sartzen da lehian, eta mundu amaikorra amaigabetzat jotzean, umorea lortu. Gizakia, arte-adierazpenean, unibertsoa ulertzeko kapaz ez dela onaturik, hura bera bere osoan hartzen duenean, partikularretik aldenduz, generalizaziora joz, orduan umorea egiten ari da.

Para el humor no existe la tontería individual, ni los tontos, sino sólo la tontería y un mundo tonto. Diferente de las ideas de lo cómico vulgar, no pone en evidencia una locura individual. Rebaja la grandeza y eleva la pequeñez, pero, diferente

también de la parodia y de la ironía, lo hace colocando el grande al lado del pequeño al mismo tiempo que el pequeño al lado del grande, y reduciendo así a la nada el uno y el otro, porque ante lo infinito todo es igual y todo es nada (Richter, 1812: 138-139).

Umorea ez litzateke, beraz, komikoa edo irrigarria ulertzen duen fenomeno kulturala bakarrik; munduaren aurrean hartzen den jarrera eta portaera da, unibertso amaigabearen aurrean norberaren txikitasunaz jabetzeak sortzen duen plazer intelektualak sortutako efektuan oinarritua. Bertotik eratorriko dira gero hainbat adierazpen-forma: txistea, ironia, satira eta abar.

Richterren ildotik, German Bleiberg eta Julian Marias espainiarrek *Revista de Occidentek* plazaratutako *Literatura Hiztegia* (1964) umoreari buruz zera diote:

El humor [...] emana de un temperamento, de una disposición de personalísima organizada para desarticular el sistema de asociaciones habituales que unen los actos y las emaciones a sus estímulos. Este juego excéntrico, en el que aparece el pasmo cuando esperamos un bostezo, o un movimiento dilatorio, en lugar de un gesto de impaciencia, y en el que nada humano desaparece, sino que solamente resulta desplazado con arreglo a un determinado ritmo de imprevisión, constituye la fuente sustancial de todas las clases de humorismo. El mejor análisis del humorismo lo ha hecho un alemán: Juan Pablo Richter.

Horrela, bada, umore grafikoa «grafikoki adierazten den umorea» izango da, alegia, euskarri jakin batean grafikoki forma hartzen duena.

2.2. Umore grafikoari buruz

Umore grafikoaren inguruan aurretik emandako definizioa egokia bada ere, zabalegia da ikerketa honentzako, umore grafiko oso zehatza ari baita aztertzen: egunkarietan agertzen dena, eta, ondorioz, objektua kazetaritzaren ikuspuntutik ere defini daiteke. Hona Euskal Herriko Unibertsitateko Emy Armañanzas eta Javier Diaz Noci ikertzaileek proposatzen duten definizioa (1996: 111):

En una publicación, la opinión no sólo puede aportarse a través de textos, sino que también puede darse a conocer a través de ilustraciones [...]. En las páginas de Opinión de un diario las ilustraciones son bien de carácter iconográfico —retratos, caricaturas— o viñetas de humor, con o sin texto. Si un simple dibujo en apariencia inocente puede estar cargado de intención, ésta se torna opinión crítica irónica, ácida, cuando viene acompañada del humor. Son esas viñetas que generalmente reposan a los pies de los editoriales o haciendo compañía a otros artículos de opinión en unas páginas fundamentales para conocer el posicionamiento de un periódico sobre los más variados acontecimientos.

Definizio bikain horrek argi uzten ditu interesekoak diren zenbait gako-hitz: iritzia, marrazkia, bineta, kritika eta kokapena, hurrenez hurren.

Gauzak horrela, umore grafikoa kazetaritzan iritzi-generoa da. Gainontzeko iritzi-testuak laguntzen dituen euskarri bisuala ere izan ohi da. Begiz jota, irakurleak berehala antzeman dezake berorren autorearen edo/eta medioaren kokapen ideologikoa. Izaera bisualak, binetaren edo karikaturen formatuan, ukitu

umoristikoa ematen dio, eta modu horretan, hitz gordinez esan ezin dena askoz «toleratuagoa» izango da.

2.2.1. Umore grafikoa Euskal Herrian. Erreferentzia teoriko batzuk

Umore grafikoa, espezifikoki Euskal Herrian, batez ere Jose M^a Unsainen obrei esker da ezaguna Akademian. Horrek, gurean plazaratu den umoreaz ez ezik, tokiko komikigintza eta irudigintza ere ikertu egin ditu, zeren. Armañanzas eta Diaz Nociren zitan ikusi bezala, idatzizko medioen umore grafikoak komikiaren lengoaiatik ere edaten baitu.

Hala izanik, ez dira gutxi «komiki-zinta», «bineta», «karikatura» eta umore grafikoa sinonimo hartzen dituzten lanak, lehenengo hirurak laugarrenaren parte osagarriak diren arren. Partikularki, bineta zera da: «Cada uno de los recuadros con dibujos y texto en los que se compone una historieta y suele reflejar los distintos instantes de una historia. Entre cada una de ellas se produce una elipsis o salto temporal» (Entrialgo, 2011: 277). Mauro Entrialgo marrazkilari gasteiztarrek emandako definizioa hala bada, zinta komikoa kontakizun laburra izango litzateke, lerro batean jarritako bineten bidez egituratua. Azken hori da, hain zuzen, prentsan agertzen den umore grafikoaren formatu ohikoena. Azkenik, karikatura zera litzateke:

Karikatura distortsioa da [...]. Horretarako baliabiderik eraginkorrenak erabiltzen ditu, batez ere irudia, baina baita testua ere, eta sarritan biak: esaldi batek, hitz bakar batek hankaz gora jar dezake erretratuaren ustezko seriotasuna... Edo eta alderantziz. Zeren eta umorea ustekabea, paradoxan oinarritzen baita, eta karikaturak, adeitsuena nahiz iraingarriena izan, umorea du helburu (Zumalakarregi, 2004: 9).

Gauzak horrela, argiago esposatu daitezke Unsainen obrak, eta horien artean ikerketa honetarako erreferente nabarmenena bere *Antecedentes del cómic en Euskadi* ikerlana (1990), non 1894 eta 1939 urteen arteko istoriotxo eta argitalpen grafiko umoristikoa bildu eta Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko marrazkilari nabarmenenak aipatzen dituen, halako ibilbide historikoa proposatuz. Lanak argitaratutako agerkariak aipatzen ditu, bai eta autoreen izenak eta tarteka haien narratibarekin lotutako xehetasun deskriptiboak ere —adibidez, XX. mendea aski sartuta egon arte hizketa-globo edo bunbuilorik ez zela egiten, testua bineten oinpean jarriz—. Gerora, 2005eko *Entziklopedia Emblematikoan* Carlos C. Borra-ekin batera «Komikiaren historia Euskadin» artikulua plazaratuko du, zeinak, metodo historiografikoarekin segituz, aurrekoaren lekukoa hartu eta 1936-2004 urteen arteko euskal komikigintza eta umore grafikoa ikertzen dituen, oraingoan Ipar Euskal Herriari ere aipamenak eginez (2005: 121). Konklusio nagusia, hauxe: Francoren diktadura jausten ari dela, euskal komikigintzak sentimendu abertzaleetara gidatzen dituela bere gaiak, adierazpen-askatasunak aurrera egin ahala. Are gehiago: 1977an jaiotzen den *Egin* egunkariak, ezker abertzalearen bozeramaile, orrialde oso bat dedikatuko dio umore grafikoari, bertan Antton Olariaga marrazten hasiko dela. Lerro hauek idazten dituenak urte hartako *Egineko* umore grafikoaren gaitegia ikertu zuen, tratatzen zen gai nagusia demokraziaren defentsa zelarik (Castañeda & Pineda-Martínez, 2016).

Garaiko egunkari eta almanaken umore grafikoan zentratuz, eta Unsaini berriz helduz, 2004an publikatzen du «El humor gráfico de la prensa de Bilbao y San Sebastián (1865-1936)». Artikulu horretan, 1990eko obran aipatutako hainbat autore ekarriko ditu beste behin ere —«Txiki», Arrue, «Kili-Kili» eta abar—. Bai liburua, bai artikulua, osagarriak dira: marrazkilariek joera dute umore politikoa egiteko, ideologia jakinen alde, zein aldizkari/egunkaritan egiten duten. Halaber, biztanleria euskalduntzeko ardura ere antzemango da argitalpen zehatzetan, adibidez Iruñeko *Zeruko Argian*. Fenomeno horrek euskal/euskarazko prentsaren eginbide didaktikoa eta ideario euskaltzalea zabaltzeko grina agerian uzten du, bai eta Bizkaiko zein Gipuzkoako argitalpen-indarra ere, orduko industrializazioaren eraginez.

Ikerketa historikoei jarraiki, Diaz Nocik bi artikulu nabarmen ditu, zeinetan euskaraz argitaraturiko lehen komikiaren bultzatzaile izandako Abdón Alaizaren lana ezagutzera ematen den, bai eta *Txistu* deitutako lehen komiki horren sorkuntza ezagutarazi ere. Lehenengo ikerlana, erdalduna, *Kultura* aldizkarian plazaratu zen (1990a), eta bigarrena, euskaraz, *Jakinen* (1990b).


Bestalde, Eibarko *Diario Vascon* marrazkilaria eta Arte Ederretako irakasle den Jose A. Azpilicuetak berak argitaratutako komiki-zinten inguruko tesia defendatuko du 2000. urtean. Ikerketa deskriptiboa da: 1989-1993 urteen artean, *Supermendikute* seriearekin plazaratu zituen 250 zinta aztertzen ditu, estiloan eta forman antzematen den eboluzioa deskribatuz, bai eta gaitegiak eta baliabide grafikoak ere. Tesia ikerketa honen metodologian izan du eragina: lerro hauetan ez dira gaiak edo marrazketa-estiloak ikertzen, ez eta adierazpen-baliabideak ere. Bai, ordea, zinten kokapena egunkarien webgune eta orrietan, Azpilicuetak muntaia deitzen diona bere ikerlanaren 1.10 epigrafean. Halaber, hona ekartzen dira autore horrek baliatzen dituen bineten muntaiari dagozkion bi termino, hots: *gag panel* —bineta bakarreko txiste edo kontakizuna (Azpilicuetak, 2000: 288)—, eta bineta-para —bi egoera desberdinen arteko konparaketa proposatzen duena (2000: 289)—, hemen aztertzen diren zinta ia guztiek egitura horiek baitauzkate.

3. Ikerketaren lagina

Behin objektua eta berorren aurrekari nagusiak azalduta, jarraian aipatu beharrekoa da zein egunkaritatik aterako den azertu beharreko umore grafikoa. Esan bezala, Euskal Herriko egunkariak ekarri nahi dira hona, audientzia gehien dutenak intereseko.


3.1. Hego Euskal Herriko egunkariak

Euskal Herriko Hegoa eta Iparra osatzen duten lurraldeak ikusita, bertan produzitzen eta banatzen diren informazio orokorreko egunkariak azertu nahi dira, batez ere tokikoak edo probintzialak. Horiek topatzeko, eta Hegoaldeari begira, hedabideen audientzia modu zehatzenean neurtzen duen etxea CIES edo Ikerkuntza eta Gizarte Ikerketen Zentroa da, zeinak jarraian datozen audientzia-datuak eskaintzen dituen Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) prentsaren inguruan 2017 urtean:



1. grafikoa. EAEko egunkarien 'on/off line' edizioen audientziak (2017). Iturri propioa, CIESen datuekin.

Zentroak ere Nafarroako Foru Erkidegoko (NFE) datuak eskaintzen ditu, zeinean hiru egunkari errepikatzen diren: *El Diario Vasco*, *Berria* eta *Gara*:



2. grafikoa. NFEko egunkarien 'on/off line' edizioen audientziak (2017). Iturri propioa, CIESen datuekin.

Ikerketa honen intereseko diren egunkariak tokian tokikoak eta informazio orokorrekoak dira. Bi erkidegoetan dauden egunkari horietaz gain, audientzien rankingaren lehen mailan dauden hiruna goiburu hartuko dira, abertzale eta ez abertzaleak —banakatze horren izenak dakartzan erronka semantikoa onartuz— banandu daitezkeen bloke ideologiko bakoitzeko egunkari kopuru berdintsua egon dadin. Beraz:

2. taula. Ikertuko diren Hegoaldeko egunkarien zerrenda.

Ikertuko diren Hego Euskal Herriko egunkarien zerrenda	
Abertzaleak	Ez abertzaleak
<i>Gara</i>	<i>El Correo</i>
<i>Noticias de Navarra</i>	<i>El Diario Vasco</i>
<i>Deia</i>	<i>Diario de Navarra</i>
<i>Berria</i>	

Iturri propioa.

Ideologia, egunkari edo enpresa informatibo bakoitzak zehazten dituen balioen arabera atara da, orokorki haien estilo-liburuetatik. Horrela, eta prentsa abertzaleari helduz, *Eginen* oinordeko den *Garak* zera dio bere lehen alean (1999ko urtarrilaren 2an, 2. or.): «La afirmación de que *Gara* ha sido concebido como un diario de Euskal Herria (...) no es un lema publicitario (...). Es la base sobre la que día a día va a ir construyéndose cada página de este periódico (...). Esta visión nacional vasca impregnará también al resto de secciones». Horrela, egunkariaren zeregina *Eginenaren* berdintsua da: Euskal Herriaren eraikuntza, ezkerren ikusmoldeak.

Bestalde, *Deia*, *Noticias de Navarra* eta *Diario de Noticias de Álava* direlakoak Noticias® taldekoak dira, lehenengoa aitzindari, 1977an sortua.

Deia ha sido desde sus inicios un proyecto [...] surgido gracias al impulso de miles de suscriptores que eligieron tener su propio medio centrado en la visión de Euskadi y del mundo desde la sensibilidad propia, la identificación con la cultura y la especificidad social vasca y generado a partir de las prioridades, inquietudes y necesidades de la ciudadanía de este país (Deia.eus, 2017).

Horrela, *Egin/Gararen* antzera, *Deia* eta *Noticiasekoak* «herria egiteko» jaio ziren, batez ere jeltzale moderatuei zuzenduta.

Jarraitzeko, *El Correo Español – El Pueblo Vasco* eta *El Diario Vasco* direlakoak Vocento® etxeakoak dira. Espainiar konstituzionalistak, euskal autonomiaren defendatzailetzat dute euren burua, betiere marko espainiarraren barruan: «Vocento está comprometido explícitamente con la legalidad democrática que bajo el amparo de la Corona definen la Constitución de 1978, así como las leyes que la desarrollan y los estatutos de autonomía» (Sousa, 2002: 19).

Aurrekoen antzekoa da *Diario de Navarra*, 1903an sortua, liberal-kontserbadore izan du historikoki bere burua (DN, 2003). Gaur egun, bera editatzen duen La Información® taldea «independente» definitzen da, ikuspuntu erregionalista batetik:

El Grupo mantiene una política de RSE sustentada en el criterio de contribuir al progreso de Navarra con el fomento y apoyo de iniciativas relacionadas con la cultura, la solidaridad y, en general, con el desarrollo económico y social de la Comunidad foral (La Información, 2008).

Oro har, Nafarroako Foru Erkidegoan elkarren arteko lehiak izan dira *Noticias de Navarra* eta *Diario de Navarra*, azken hori zentro-eskuin kontserbadorearen bozeramaile, eta aurrerakoiagoa lehena (Urta, 2007).

Bukatzeko, *Berria* egunkaria taularen erdian kokatu da, ez baitauka editorialik bere kokapen ideologikoa hautemateko, bere aurrekari *Euskaldunon Egunkariak* bezala (Ramírez de la Piscina & Agirreazaldegi, 2009: 206). Halaber, ez du bere burua abertzale esplizituki kontsideratzen, bere estilo-liburuan argi adierazten du (2010):

BERRIAN, aniztasunaren alde egingo da. Kolaboratzaile, zutabegile, blogari eta, oro har, BERRIAN idazten duten guztien iritzia bere hartan errespetatuko dira. Euskal irakurleen artean dagoen iritzien zabala kontuan hartuko da. Informazioa emateko, alde guztien ikuspuntuak bilduko dira, eta albistearen alde guztietako protagonistei ahotsa emateko ahalegina egingo da beti.

Hala izanik, panorama periodistiko ideologikoki orekatu egiten da hautaturiko laginean, zoritxarrez, hizkuntza aldetik egin ezinako ariketa; *Berria* izan ezik, denak dira erdaldunak, atalen bat edo beste euskaraz plazaratzen badute ere. Umore grafikoan ere *Berriako* marrazkilariek publikatzen dute Etxepareren hizkuntzan, eta 2019ko ekainetik aurrera *Garan* ere bai, sartu berri den Unai Iturriaga *Zuagazari* esker (Naiz, 2019).

3.2. Ipar Euskal Herriko egunkariak

Hegoaldean ez bezala, Iparraldean ez dago CIESen moduko etxerik tokiko prentsaren audientzia neurtzeko. Are gehiago konpliketzen dira gauzak aipatuz gero Ipar Euskal Herriak ez duela departamendu/erregio egiturarik, eta ondorioz bere prentsari buruzko datu ofizial oro Pirinio Atlantikoen Departamenduko (64) edo Akitania Berrikoei lotzen zaie. Zorionez, 2017ko uztailetik Ipar Euskal Herriak hirigune-elkargo egitura dauka (EHE, d/g).

Urteagaren ikerketen ildotik, 1975. urtean amaitzen da Ipar Euskal Herriko tokiko prentsaren existentzia, *La Nouvelle Gazette de Biarritz* egunkariaren itxierarekin. *Sud Ouest*ek hartu zion lekukoa, Jaques Lemoine-k Akitania osorako 1944an sortua (*Sud Ouest*, 2019). 1969ko azaroan *Pays Basque* edizioa jaio zen, tokiko prentsari zulatutako hutsunea betetz (Urteaga, 2004: 437).

Egun tokiko prentsaren erreferenteetako bat da *Sud Ouest*, Frantziako bigarren berripaper erregional irakurriena. 90eko hamarkadaren amaieran, % 63ko penetrazio-indizea lortu zuen *Sudek* Ipar Euskal Herrian (Urteaga, 2004: 446), eta egun Akitania Berriko egunkari leituena ere bada.

Sud Ouest est le 2e quotidien régional français. [...] Il est lu, chaque jour, par plus d'un million de lecteurs et le site «sudouest.fr» s'est imposé comme la référence en matière d'information locale sur la région (17 millions de visites/mois) (*Sud Ouest*, 2019).

Eskuragarri dauden datuen arabera, ACPM etxeak erraztuak, eta egunkariak plazaraturiko datuekin kontrastatuz, 1.005.000 irakurleko audientzia zeukan *Sud Ouest*ek paperezko edizioan (2017), eta digitalean 17.189.696 (2019ko ekaina). 64. departamendu osoa hartuaz, % 50eko penetrazio-indizea osatzen du *La République des Pyrénées —La Rép—* egunkariarekin batera, azken hori Groupe Sud Ouest etxekoa izanik (*La Rép des Pyrénées*, 2019).

Hala ere, ez *Sud Ouest*, ez *La Rép* ez dira Ipar Euskal Herri mailako egunkariak: lehenak, esan bezala, Akitaniako departamenduak hartzen ditu —«Sud Ouest est [...] diffusé sur sept départements (Gironde, Landes, Pyrénées-Atlantiques, Lot-et-Garonne, Dordogne, Charente et Charente-Maritime)» (Sud Ouest, 2019)—. Bigarrena, bestalde, Biarno eta Zuberoan dago zentratua.

Halaber, eta esan bezala, behin *Le Journal du Pays Basque - Euskal Herriko Kazeta* amaitua, 2001ean hasitako proiektua, agortutzat eman daiteke bertoko prentsaren existentzia, berririk jaioko ez baita (Baigura, 2008). Gainera, ikerketa honetan paperezko edizioez gain, sarekoak ere arakutzen dira, eta *Sudek* ez dauka Interneten Euskal Herrirako ediziorik; alta, bere gunean sartuz gero, *SudOuest.fr*, Akitania osorako berriak agertzen dira, goiburuan komuna nagusiei estekak lotzeaz beste —Euskal Herriaren kasuan, Baiona eta Biarritz—. Halaber, Baionaren estekan sakatuz gero (www.sudouest.fr/pyrenees-atlantiques/bayonne) aukera ematen du kostaldeko beste komuna populatuen berrietara ere jotzeko: Angelu, Biarritz, Donibane-Lohizune eta Hendaia. Edonola ere, *Pays Basque* edizioa ez dago bere horretan sarean, eta, ondorioz, ikerketa honetatik kendu behar.

3.3. Tokiko egunkarien edizioak

Argitu behar da, halaber, edizioen afera. Euskal Herri osoa bere horretan hartzen duten eguneroko bakarrak *Berria* eta *Gara* dira. Azken horren kasuan, lurralde osorako edizio orokorra dauka Interneten —*Naiz.eus* ataria, hain zuzen—, bai eta atari berezia nafar aferei buruz: *Iruindarra.naiz.eus*. Halaber, *Kazeta* delakoa dauka Ipar Euskal Herriko albisteentzat, euskaraz, eta *Mediabask* delakoa, elebiduna, esparru bererako (Soto, 2013). Antzeko moduan, *Berriak* baditu *Hitza* gehigarriak, eusko lurralde bakoitzarentzako bana. *Gararen* antzera, paperezko edizio nagusia eta atari printzipala (*Berria.eus*) izango dira azterlan honetan hizpide.

Gainontzeko egunkariak, euren aldetik, ez dira Euskal Herri mailakoak: Vocento etxeko *El Correo* egunkari bizkaitartzat defini daiteke, Bilbon baitu egoitza, baina edizio bereziak Gipuzkoako Eibar-Arrasate eskualdean, Araban, Errioxan eta Burgosko Miranda-Ebron. Halaber, Bizkaian bertan edizio partikularrak ditu: Bizkaia, Eskuinaldea, Ezkerraldea, Nerbioi-Ibaizabal, Durangaldea eta Uribe Kosta. Paperean eta bertsio digitalean kontuan hartuko dena Bizkaiko orokorra da.

Modu berean, etxe bereko *El Diario Vascok* bere edizio propioak ditu Gipuzkoako orokorraz gain: Buruntzaldea, Debagoiena, Debabarrena, Oiartzualdea, Tolosa-Goierrri, Urola Garaia, Urola Kosta eta Bidasoa-Baztanerako edizio nafarra —hortik lehen ikusitako egunkariaren audientzien zifrak Nafarroan—. *Correorekin* egin den moduan, *Diarioren* bertsio orokorrak hartuko dira eredu.

Noticias Taldearen *Noticias de Navarra*, bere aldetik, eta agian *Diario de Navarraren* sistemari segituz, egunkariko merindade-edizioak ditu. Azken horrek —La Información taldekoa— orrialde bana dauka Nafarroa Garaiko merindade eta eskualdeko: Iruñea/Iruñerria, Lizarraldea, Iparraldea, Tuteria/Erribera, Tafalla/Erdialdea eta Zangoza(Idea). *Noticiasek*, ordea, orrialdeez beste, edizio propioak dauzka Iruñerri, Erribera, Erribera Garai, Lizarralde, Tafallalde, Sakana-Leitzalde eta Baztan/Bidasoarako. Ikerlan honetarako Iruñerriko edizioak hartzen dira, orokorrak.

4. Metodologia

Helburuei so, eta ikerketa esploratzailea denez, sistematizazio finko bat baino areago, deskribapen zehatza bilatzen da, non eta offline edizioetan marrazkilariak duten kokapen, tamaina eta garrantzia ikusaraziz. Ordea, gida moduko bat sortu egin da lanabes bezala, deskribapena gidatzeko eta gerora jasotako informazio guztia behar bezala azaltzeko. Horrela, metodoa esploratzaile eta deskriptiboa dela argi utzi behar da, eta zentzu horretan, jadanik aipatu den Azpilicuetaren ikerketa da eredu (2000), non zinta komikoen ñabardurak sistematikoki estudiatzen diren gerora baliabide batzuk edo beste zer frekuentziarekin agertzen diren azalduz. Azpilicuetaren ardura dira bere zinten gaiak, hizkuntza, komiki-lengoaia, enkoadraketa eta muntaia, horien azterketatik ateratzen duena diagramatan jasoz. Lerro hauetan, ordea, beharra xumeagoa da: jasotzen diren zinta eta binetak zer-nolakoak diren deskribatu nahi da, medioen panorama umoristikoa berri ematearren. Zentzu horretan, ikerketa hau hurbilago legoke Unsainen metodo historikotik, aurretik ikusi dena, non autoreen izenak, obrak eta medio inprimatuak aipatu eta deskribatzen diren, nahiz eta une honetan optika historikotik ez eta orainaldia den helburu. Autore horrek berak aurretik egindako ikerlana aipagarria izan daiteke orduan, non esplorazioaren bidetik, organismo jakinek komiki-materialak inguru zibernetikoan nola kudeatzen dituzten aztertzen den (Castañeda & Pineda-Martínez, 2013). Beraz, metodologiateknika nagusia, bai orduan, bai orain, jasotzen diren datuak biltzeko taula egoki bat prestatzea izango da.

4.1. Egunkari inprimatuetan jasoko den umore grafikoa sistematizatzeko taula

2019ko abuztuan zehar Euskal Herriko Unibertsitateko Bibliotekako hemerrotekan aztertu ziren egunkarion aleak, tarteka, eta ikertzaile honen eskuragarritasuna zela medio, Bizkaiko Foru Liburutegiko eta Gasteizko Ignazio Aldekoa kultur etxeko hemerroteketan ere aleak ikuskatuz. Jarraian, erabat kualitatiboa den eta deskribaketa apur bat sistematizatzen duen taula aurkezten da, berorren ondoren azalduko diren kode jakinekin osatu beharrekoa.

3. taula. Idatzizko edizioetan jasoko den umore grafikoa sistematizatzeko taula.

Idatzizko edizioak								
Egunkaria (Izena)	Marrazkilariak (Sinadura)	Kokapena (K)					Kolorea	Tamaina (modul.)
		Sekzioa	Atala	Or. (±)	K-eg.	K-or.		
				XX – Es / Ez	Has Erd Ama Kon	G E B	Bai / Ez	↔

Iturri propioa.

Azaldutako taula honetan egunkari bakoitzaren izena jasotzen da. Bakoitzaren alboan, bertan marrazten dutenen izenak, bai eta zein sekziotan egiten duten ere —gogoratu iritzi-generotzat kontsideratu dela umore grafikoa, eta ez denbora-pasa soila—. Atalari dagokionez, marrazkilari jakinek euren sekzio propioa izan dezakete, edo/eta sekzio jakin baten barruan euren propioa.

Adierazi behar da, aurrera segitu aurretik, denbora-pasa sekzioan agertzen diren komiki-zintak baztertu direla. Arrazoa oso xumea da: aurre-testa eginda, ikuskatu da gurutzegramen eta jolasen atalean argitaratzen diren zintak ez direla analisi honetan kontsideratzen diren modukoak, gaztelerara itzulitako eta King Features Syndicate® etxe iparramerikarrak erraztutako zintak edo komiki-zatiak baizik, tokiko egunerokotasunaren kritikaz edo iritziaz at. Halaber, eta pentsa daitekeenez, euren marrazkilariak ez dira euskotarrak.

Aurrera segituz, eta egunkarien lodiera aldagarria delako, gutxi gorabeherako orrialdea jakin nahi da (*Or. ±*), eta orrialdea ezkerrekoa izatea edo eskuinekoa izatea garrantzitsua denez —ez baitauka inpaktu bera bata edo bestea izateak, publizitate-insertzioak garestiago ordaintzen baitira orrialde bikoiti eta eskuinekoetan—, zinta komikoa eskuineko (*Es*) edo ezkerreko (*Ez*) orrian dauden jakin nahi da. Hortaz, orrialdearen zenbakia jarriko da (*XX*) eta gidoiaren ondoren, «Es» edo «Ez».

Modu berean, kokapena (*K*) egunkarian jakin nahi da (*K-eg.*), ez baitauka garrantzi bera umore grafikoko pieza egunkariaren hasieran bertan egotea (*Has*), erdigunean (*Erd*), amaieran (*Ama*) edo kontrazalean (*Kon*). Hasieran bada, inpaktua sendoagoa izango da, eta gauza bera kontrazalean argitaratzen diren zintekin, ikusgarritasun handia dutenak.

Kokapenak ere orrialdeari erreferentzia egiten dio, orrialdean ez baita gauza bera goialdean agertzea (*G*), erdigunean (*E*) edo behealdean (*B*), eta horrekin batera, zintak duen koloreak² eta tamainak ere baldintzatuko du bere presentzia orrialdean. Tamaina, milimetroka beharrean, moduluka egingo da, berripaperari hobe egokitzen zaion sistema delakoan —publizitate-insertzioak egiteko baliatzen den sistema—.

Aztertuko diren bineta eta komiki-zintek idatzizko edizioetan zer zabalera okupatzen duten adierazteko, egunkarietan publizitatea kontratatzeke erabili ohi den sistema erabiltzea erabaki da: modularra, hain zuzen. Modulu bakoitzak 30 milimetroko altuera eta 48koa izan ohi du. Beraz, errazagoa da zinten eta bineten zabalera neurri hori hartura adieraztea.

Aipatu behar da, halaber, egunkari-orrialdeetan 5 modulu-zutabe egon ohi direla, zutabe bakoitza beste 10 modulurekin, *Berriakoa* izan ezik, 9 dituena. Analisi-taulan, zabalera (\leftrightarrow) adieraziko da, eta bineta karratua bada, \leftrightarrow bider altuera ($\hat{\partial}$).

2. Autore batzuek, une jakinetan, zuri/beltzean argitaratuko dute, eta kolorez bestetan. Koloretan noizbehinka argitaratzen bazaie ere, kolorez egiten dela adieraziko da, informazioa sintetizatzearren.

4.2. Egunkari digitaletan jasoko den umore grafikoa sistematizatzeko taula

Aurrekoaren tankerari segika, honako taula baliatuko da edizio digitaletarako:

4. taula. Edizio digitaletan jasoko den umore grafikoa sistematizatzeko taula.

Edizio digitalak								
Egunkaria	Marraskilariak	Kokapena(k)			Kolorea	Tamaina	Kalitatea	Anima-zioa
		Home page	Sekzioa	Atala				
Egunkariaren sigla	Marraskilariaren sinadura	Bai / Ez	<i>Izena</i>	<i>Izena</i>	Bai / Ez	H E T	H E T	Bai / Ez

Iturri propioa.

Webgunea paper-orri sorta bezala egituratzen ez denez, are garrantzi gehiago emango zaio umore grafikoari sarrerako orrian komiki-zintarik topatzen bada. Hortik umore-piezarik *home page* delakoan agertzen den edo ez galdetzearen arrazoia. Modu berean, kolorerik ba ote dagoen jakin nahi da, digitalean ez baitago kostu-arazorik pieza grafikoa koloretan jartzeko. Modu berean, jakin nahi da animazio-efekturik ba ote dagoen.

Amaitzeko, tamaina eta irudiaren kalitateari erreparatzen zaio: zenbat eta irudia tamaina eta kalitate handiagokoa izan, orduan eta deigarriagoa izango da erabiltzailearentzat. Tamaina, kasu honetan, erresoluzioari dagokionez kalkulatu da, irudiak deskargatuz eta diseinu-programa bidez aztertuz.

- Tamaina handikoak (H) izango dira 200 puntu hazbeteko (ph) dituzten irudiak.
- Ertainak (E) izango dira 96 eta 190 ph artean dituztenak.
- Txikiak (T) izango dira 96 ph baino gutxiagoko irudiak.

Kalitatea aipatzen dudanean, irudiak berak zuen ikusgarritasun eta definizioaz ari naiz, zaratarik gabe —baliteke, beraz, T tamaina duen irudia kalitate handikoa izatea—. Eskala-neurri berbera erabiliko da beraz, irudien kalitateari begiratuz eta elkarren artean konparatuz —H, E edo T—.

5. Emaitzak

5.1. Paperezko umore grafikoa

5.1.1. Vocento etxeko egunkariak: Zulet, Anton, Olmo eta Txispas

El Correek eta *El Diario Vascok* sekzioen planteamendu berdintsua dute, eta kasuan kasu, errepikatzen diren marrazkilariak ere. 2016an bezala, marrazkilariak berdin jarraitzen dute gaurdaino.

Egunkari bietan Jesus Zulet (Iruñea, 1956) marrazkilariak pribilegiozko tokoa dauka tarteko orrialdeetan, iritzi-atalean eta eskuineko orrialdean kokaturik, deigarrien, 1990etik bi egunkarietan dabilela (Barrero, 2002). Kolorez argitaratzen dizkiote komiki-zintak, bineta bakar edo *gag panel* modukoak, goiko parteko ia lau modulu hartzen dituen zentzu horizontalean. Ezkerreko orrialdean, eta iritzi-artikulu nagusiari lagunduz, Jose M^a Alemán Amundarain edo Jose Ibarrolaren ilustrazioak agertu ohi dira, *Correon* eta *Diarion* txandakatuz. Marrazkilariok aipatzea merezi badute ere euren lanen kalitate artistikoa dela-eta, marrazkiak ez dira umore grafiko kontsideratuko, zeren, noizbehinka kutsu umoretsurik badute ere, ilustrazio apaingarri eta sinbolikoak baitira.

Correora itzuliz, Zulet nagusi den orrialdearen bueltan Oscar Garibaldi eta Alberto Blesa daude, *Anton* izenpean sinatzen dutenak eta egunkarian 1998tik dihardutenak (FIG, 2017: 30). Bineta (bakarra) sortzen dute kolorez, baina Anton delakoaren kokapena askoz ere apalagoa da Zuletenarekin konparatuta: ezkerreko orrian, beheko aldean eta testu-maketazioaren bigarren zutabearen erdian.

Baina nolana ere, *Correoren* irakurle ohikoentzat umore-zinta enblematikoena Luis del Olmo (Bilbo, 1922) marrazkilariaren *Don Celes* da, kontrazalean eta zuri-beltzez agertzen dena, orrialdearen behealdeko lau bat modulu hartuz, lau bat bineta karratutan. 1945ean *La Gaceta del Norten* jaioa, *Correon* egingo du bere ibilbidea gero (Getxo, 2005). Umore inozokoa, bere aurreko marrazkilariarekin konparatuz, Bizkaiko prentsaren ikur komiko bilakatu da, bere umorismo zuriaz garai latzenei ere aurre egin diona.

Nik nahi dut egunero, egunkariaren txoko horretan, Don Celes onkotea ager dadila irribarre bat eskaintzera, horixe besterik ez [...]. Horixe bakarrik: irribarre xume, atsegina eta gizakoi bat, hori baita ika-mika, kontsumismo, inflazio eta hauteskunde mundu batean, umoregile batek egin dezakeen oparirik atsegingarriena (Olmo [Unsain eta Borra, 2005: 110]).

Diarion ez dauka, bestalde, Zuletez aparteko marrazkilari enblematikorik —are gutxiago Olmo, nahiz eta bere komiki-zintak bere garaian publikatu izan dituen—. Hasierako orrialdeetan (15. or.±) Adolfo Luzuriaga *Txispas*-ek marrazten du (Errenteria, 1960), orrialdeko goiko alde guztia okupatzen duen kolorezko gag panel moduko zinta batekin. Sekzioa, *San Sebastián*, ez da iritziari dagokiona, Zuletentzat erreserbatua. Hala ere, aipatu beharrekoa Txispasen lana, egunkariaren hasieran bertan topatzen den umore grafikoaren pieza baita, 1989tik etenik gabe *Diarion* egon dena (Soriazu, 2019).

5.1.2. Noticias taldeko egunkariak: Argote eta Jota-Jota

Noticias taldeko *Deiak* eta *Noticias de Navarra*, aurreko *El Correo* eta *Diario Vascoren* antzera, maketazio eta edukien planteamenduan irizpide berdintsua dute. 2016an oraindik jarraitzen duten marrazkilariak dira.

Egunkari bizkaitarrak eskuineko lehen orrialdean aurkezten du Luis Ángel Argoteren (Gasteiz, 1971) zinta, 2005etik *La Tira de Argote* izenburupean (Argote, 2015). Argotek, modu berean, ikerketa honen irizpideen arabera aztertu ez den *Diario de Noticias de Álava*n ere argitaratzen du, *Deiaren* orrialde-kokapen berdinean: 3.a, eskuinekoa, erdigunean, zabaleran hiru bat modulu okupatuz eta bineta bikoitzarekin, bi egoeraren arteko talkarekin efektu umoretsua lortuz. Nahiz eta orrialdea noizbehinka kolorez argitaratu, marrazkilari gasteiztar honen lana beti doa zuri-beltzean, bere marrazkiak zuzenean arkatzez eta gero ordenagailuz lantzen dituela.

Bestalde, *Noticias*, *Deiaren* etxe berekoa izanik, 3. orrialdean bertan ere sartzen du umore grafikoak: Argotek *Deiaren* bezalaxe, espazio eta kokapen bera hartzen du *Jota-Jota* ezizendun marrazkilari nafarrak, *La tira de Jota-Jota* atalean, aldiaren behin kolorez ere argitaratzen duena. Zintek ere bi bineta izan ohi dituzte, bakarra ez bada.

Jota-Jotaz aparte, ez dago beste umorista grafikorik egunkarian, ez eta iritzien atalean ere. Umore grafikoari dagokionez, hau ei da Noticias taldeko egunkariak eta Vocentokoek duten desberdintasun nabarmenena: zintei emandako kokapena, lehen kasuan editoriala ikus baitaiteke, irakurleen iritzi eta tribunak atzerago doazela, eta bertan agertzen da Argote edo Jotaren zinta lehen ordenako iritzi-genero lez. *Correo* eta *Diario*n, ordea, iritzi guztiak doaz egunkarien erdigunean, umore gehiena barne.

5.1.3. Diario de Navarra: Ramon eta Oroz

Jo dadin orain Nafarroa Garaian penetrazio gehien duen *Diario de Navarra* berripaperera. Bertan agertzen da, iritzi-ataleko eskuineko orrialdean (*Opinión*, 15. or. ±) *Ramon* marrazkilaria, estilo xume eta solte batekin egunerokotasuna komentatzen duten pertsonaiak —ia beti maskulinoak— sortzen dituen, bineta bakar batean. Hiru modulu inguru hartzen ditu zabaleraz, orrialdearen goialdeko erdigunean kokaturik, ia karratua den bineta osoa okupatuz. Bere lana kolorez egin ohi du, eta gaitegia, inguruko testuren batek garatzen duen ideia baten ingurukoa.

Bestalde, *Diario*k dauka euskal prentsan arras ezaguna egin den Oroz marrazkilari enblematikoa (Iruñea, 1968), bere zinta komikoa egunkariaren atzealdean 1991tik argitaratzen duena (Oroz, d/g), kolorez gaur egun eta *Punto final* sekziopean.

Zesar Oroz da *Diario de Navarra*-ren azkeneko orrialdeari, bere «Punto final»-en bidez, goiburua jartzen diona; irakurleari bat-batean lehen orrialdeko izenburuak irakurri baino lehen, egunkariari buelta emanarazten eta gaurkotasunean kokarazten duena, gehienetan foralak diren Oroz-en zerrenda ziztatzaile eta batzuetan garratz haiekin. Gero, lehenengo inpresiotik lasaitu ondoren, irakurle bizkorra lehen orrialdeko gerra eta gertakarietan gera daiteke, edo Zesar Oroz arranguririk gabeko jarraitzaile den Osasuna ekipoaren behin eta berrizko garaipenetan (Azpilicueta eta Domenech, 2005: 198).

Orozen bezalako pribilegiozko kokapen hau *Berriako* Antton Olariagak (Usurbil, Gipuzkoa, 1946) bakarrik hartuko dio, arlo euskaltzalean hain ezaguna den *Zakilixut* pertsonaiaren seriea marraztuz, zinta kokatzen den sekzioari izena ematen diona (GFA, 1998). Orozen txistek bineta bakar bat edo anitz izan ditzake, unean-unean moldatuz. Ez horrela Olariaga, zeinak orokorrean gag panel delakoa edo bi binetako zinta maiteago duen.

5.1.4. *Berria eta Gara: Olariaga, Zaldieroa eta Tasio/Zugazart*

Berriak ez du umore grafikoan aurrezten: *Zakilixutez* beste, iritzi-atalean (erdigunean, 15. or. ±), Patxi Huarte *Zaldieroak* (Faltzes, Nafarroa, 1966) argitaratzen du bere *De Rerum Natura* serie satirikoa, 2005etik. Bertan dauka orrialde osoko zabalera zuri-beltzean hartzen duen seriea, noizbait ere koloretan, batzuetan goialdean, besteetan erdigunean topa daitekeena. Orozen moduan, zintek dituzten bineten kopurua aldagarrria da, nahiz eta *gag* delakoa gutxitan baliatu.

Idatzizko edizioekin bukatzeko, *Gara* berripapera dago aztertzeke. Bertan egin du lan, egunkariaren hasieratik (1999), Javier Etayo *Tasiok* (Sesma, Nafarroa, 1954), *Gararen* aitzindari *Eginen* hasia (Mugalari, 2019). «Iritzia» atalean (6. or. ±), ezkerreko orrialdeko behealdean agertu ohi zen —beraz, ez zeukan aurrekoek bezainbesteko ikusgarritasunik orrialdeetan—. Bere obrak orrialdearen zabalera guztia hartzen zuen, zuri-beltzean. Aurtengo ekainaren 2tik aurrera Unai Iturriaga *Zugazart* marrazkilari eta bertsolari durangarrak hartu zion Tasiori testigua; formatu eta toki berean bere zinta marrazten du, eta aurrekoak ez(in) bezala, euskaraz. Egitura narratiboa, bi kasuetan, gag edo bineta bikoitiak.



1. ilustrazioa. Tasioren azken komiki-zinta eta Zugazarten lehena *Garan*. Ikertzailearen argazkia (*Gara*, 2019-3-2/3).

5.2. Sareko umore grafikoa

Orain arte ikusitakoaren arabera, esan daiteke Euskal Herriko egunkarietan umore grafikoa baduela pisu bisualik, lehen orrialdeetatik bertatik prentsa euskaltzalean.

Bestalde, aipatu beharrekoa da prentsa digitalaren finantzazio-eredua aldatzen ari dela. Eguneroko asko euren web atarrien sekzio jakinak pribatizatzen hasiak dira, eta haietara harpidetuz bakarrik ikus daitezke. Logikoa denez, iritziak, entseguak eta analisiak dira ordainpeko sisteman sentiberenak, zeren iritzi publikoa kanalizatzeko moduak baitira egunkari bati ezaugarri diferentziala ematen diotenak —horien artean, eta iritzi-genero bezala, umorea—.

Aurreko ordena berari segituz, jo *ElCorreo.com*-era. Gunearen hasierako orrian, ez dago umore grafikoen arrastorik, paperean ematen zitzaion pisua deseginez. Webgunean arakatuta ere ez dago. Bakarrik *Blogs* izeneko esteka atariko behealdean, zeinera joz gero, sekzio anitzeko menua topatu ahal den. Horietako bat *Humor* da, Oscar Terol umoristaren bloga, bere testuekin.

DiarioVasco.com-en kasuan *ElCorreon* bezala gertatzen da: paperean bezala, maketazio eta diseinu berdintsua daukate biek, eta hasierako orrian umore grafikorik ez. Blogak ikusteko aukera ere ematen du *Blogs.DiarioVasco.com* delakoak, baina honetan ez zaio umore grafikoari lekurik uzten.

Aipatu beharrekoa da *DiarioDeNavarra.es*, zeinak «Opinión» sekzioan Orozen zintaren xehetasunen bat erakusten duen, miniatura moduan. Baina bertan sakatuz gero, harpide egitea eskatzen du. Zorionez, autoreak bere gunera igotzen du beti aurreko eguneko zinta (Oroz, d/g). Ramon delakoak ez dauka tokirik edizio digitalean.

Noticias taldeko egunkarietara joz gero, umore grafikoa badu egoera oparagoa: Nafarroakoak badu iritzi-atala online (www.noticiasdenavarra.com/opinion), irakurleen iritzi-artikuluekin eta editorial zein tribunekin. Umorerik ikusi nahi izatekotan, ordea, «Cultura y Ocio» sekziara jo beharra dago —kuriosoa, paperean zeukan kokapenari so—, eta bertako «Humor» fitxan sakatu. Orduan ikusi ahalko ditu erabiltzaileak ordura arteko Jota-Jotaren zinta guztiak, tamaina handi xamarrean (35 x 9 cm) baina erresoluzio baxuan (58 ph). Horrela irudiaren pisua jaitea lortzen da, baina tamaina fisiko handian dagoenez, haren ikusgarritasuna kalitate onez mantentzen da.

Bere aldetik, *Deia.eus*-ek eskema bera planteatzen du, ibilbide berdinetik, *Noticiasen* webgune berdintsua baitauka (www.deia.eus/ocio-y-cultura/humor). Argoteren zintak Jotarenak bezalaxe ikus daitezke, mosaikoan, bai eta deskargatu ere, 96 ph-ko erresoluzioan eta 18'5 x 6'4 cm-ko neurrian, handia ere beraz. Kasu batean zein bestean hilabetekoak ikus daitezke, egunekoak tamaina handiagoz.

Bestalde, eta nahiz eta *scroll down* apur bat egin behar, *Berria.eus*-ek hasierako orritik bertatik erakusten ditu Olariaga eta Zaldieroaren zintak, tamaina txikian bada ere. Haietan sakatuz gero, formatu handian ikus daitezke bata eta bestearen lanak, 21 x 7 zentimetroko tamainan baina 72 punturekin. Halaber, «Iritzia» ataletik ere ikus daitezke zintok, eta horien alboan agertzen den «Zinta egutegia»-ri esker zinten hemeroteka ikuskatu. Noticias taldekoek bezala biltegi oparoa dauka, beraz.

Amaitzeko, aparteko merezimendua dauka *Gararen Naiz.eus* guneak: hasierako orrian bertan, *scroll down* eginda, Zugazarten zinta dago ikusgarri, bere izenpean, eta eguneko zintan sakatzeko aukera. Miniaturetan klikatuz gero, eguneko zinta eta «Histórico» esteka agertzen da aparteko leiho batean, bertsoez beste marra-lerroak ere bikainki lotzen dituen artista horren zinten historiko guztia ikusi ahal izateko. Erresoluzio handian bada ere (300 ph), zintak tamaina txiki xamarrean daude gordeta: 5 x 1'5 cm. Hala ere, aurrekoek ez bezalako interakzio- eta partekatze-aukera ematen du *Naizek* bere zintekin, helbide elektroniko bidez —Google Mail, Email App, AddThis zerbitzua— edo gizarte-sareen bidez —Twitter, Facebook, WhatsApp, Pinterest eta LinkedIn—. Aukera hau ez da aurretik ikusi, eta esan daiteke difusiorako eta ikusleen artean komentatzeko aukera gehiago ematen dituela. Hala ere, zintetan ez da bestelako efektu bisualik edo animaziorik ikusi: paperean dagoenaren artxibo berak dira, JPG formatuan, sarera igota.

Eta ikerlan honetako laginean aztertzen ez bada ere, ezin da aipatu barikutzi *Garak* daukan astekaria, *Gaur 8*, zeinak edizio inprimatuan zein digitalean (www.naiz.eus/hemeroteca/gaur8) «Irritzia» atala dakarren, Amaia Ballesteros, Unai Gaztelumendi, Alai Zubimendi eta *Exprai* delakoaren binetaz eta ilustrazio umoristikoz josita. Denak daude tamaina handian eta erresoluzio txikian, horrek kalitate bisualik kentzen ez badie ere. Tokiko marrazkilariak denak, euren lana euskaraz garatzen dutenak orrialdeotan. Hemen ibiliak dira Unai Iturriaga eta Ainara Azpiazu *Axpi* ere bai.

6. Ondorioak

Ikerlan honetan planteatutako hipotesiari so, esan daiteke euskal berripaperek inportantzia aise ematen diotela umore grafikoari: hemen haien mezua edo umore-estrategiak aztertzen ez badira ere, argi dago egunerokotasuna gutxienez bi marrazkilarik jorratzen dutela egunkari orotan. Grafismo aldetik, kalitate eta izen handiko marrazkilarekin egiten dute lan, normalean bineta bakar batekin txistea egiten dutenak, irakurleari ikusmolde jakin bat laster batean eskainiz. Fenomenoa deigarria da oso ez abertzale gisa hartutako periodikoetan, euskarri inprimatuetan argitalpen-tamaina handiz publikatzen dutenak, bai eta izen handiko eta ibilbide luzeko marrazkilarien lanak ere (Zulet, Olmo, Txispas, Oroz). Modu berean aipatzekoa da Olariagaren lana *Berrian*, prentsa euskaldunean aski ezaguna den umorista.

Paperezko euskarrian tamaina eta presentzia handia izanda ere, ingurune digitalean aldatzen dira kontuak: audientzia gehien duten egunkariak, ez abertzaleak, ez dute aukerarik ematen umore grafikoaz sarean gozatzeko. *Diario de Navarra*k behintzat eskaintzen du eguneko Orozen zintaren xehetasunen bat, bakarrik harpidetuta ikus daitekeena. Ramonen bineta harpidetuta ikus daitekeen edo ez ezin jakin hemen, baina Oroz ez bezala, edizio digitalak ez dio miniaturarik eskaintzen. Zentzu horretan, esan beharrekoa da La Información-eko egunkariak aukera eman, ematen duela umore grafikoa sarean ikusteko, baina ez dohain, prentsa abertzaleak egiten duen bezala: gozagarri dira Interneten eta tamaina handi xamarrean Olariaga, Zaldieroa, Argote, Jota-Jota eta Zugazarten lanak, guztiak historiko batekin hemerrotekan, aitzinekoak ere ikusi ahal izateko. Zergatia, euskara

eta euskal kultura zabaltzeko grina izan daiteke: *Berriak* badu konpromisoa zabaltze horrekin, eta bere marrazkilariak euskaldunak izaki, are gehiagokoa da haien interesa euskara sarean egon dadin. *Gara/Naiz*-en kasuan, beste horrenbeste esan beharra dago.

Kokapenari so, aztertutako egunkari gehienetan dauka umore grafikoak presentzia lehen orrialdetik, eta marrazkilari gehienek euren atal propioa daukate iritzi-sekzioa laguntzeko. Kontrazalean, ordea, hiru egunkarik bakarrik eskaintzen dituzte komiki-zintak: *Diario de Navarra*, *Berria* eta *El Correo*. Ingurune digitalean, aipatzekoa da hasierako orrian erakusten dituztela *Berria.eus* eta *Naiz.eus*-ek euren marrazkilarien obrak, Noticias taldeko egunkarietan gertatzen ez dena —azken horietan, iritziari ez dagokion sekzio jakin batera joan beharra dago zintak ikustera, horren intuitiboa ez den ibilbide hipertestuala egitera bultzatuz—.

Amaitzeko, eta ingurune digitalari dagokionez, umorea sarean jartzen dituzten egunkarietatik batek ere ez ditu ingurune multimediatikoak eskaintzen dizkien posibilitate narratiboak baliatzen. Denak dira irudi estatikoak, bestelako efekturik gabekoak, eta horietatik *Naiz.eus*-ek bakarrik ez du gizarte-sareetan partekatze aukera zuzenik ematen. Zergatiak, ziurrenik aurrekontuan edo ezjakintasunean topa daitezke, baina arrazoioak jatorrian egin daitekeen ikerlan bati begira irekiak geratzen dira.

Eranskina. Zitatutako marrazkilarien lanak ikusteko guneak

Artikuluaren hasieran aipaturiko *Tirabirak* erakusketaren gunean Anton, Argote, Olariaga, Oroz, Tasio, Zulet eta Zaldieroaen komiki-zintak ikus daitezke, 1977-2016 urte-arteakoak, erakusketaren laginak zehaztu bezala: www.tirabirak.eus/eu/binetak. Horien artean, hiruri topatu zaizkie gune propioak euren obra ikusteko (kontsulta: 2019-08-04):

- www.argote.webnode.es
- www.latiradeoroz.es
- www.zaldieroa.blogspot.com (2013an etenda).

Gehitu bekie horiei *Txispas.com* marrazkilari errenteriarren gunea.

Bibliografia

- ACPM – Alliance pour les Chiffres de la Presse et des Médias (d/g). *Sud Ouest*, <<https://www.acpm.fr/Support/sud-ouest>> (Kontsulta: 2019-08-23).
- Argote, L.A. (2015): «Trayectoria profesional» [blog-sarrera], Argote – ilustración creativa, <<https://argote.webnode.es/nosotros>> (Kontsulta: 2019-08-23).
- Aristotle (2008): *The Poetics* [online liburua]. The Project Gutenberg, <<http://goo.gl/7HORd5>> (Kontsulta: 2016-02-02).
- Armañanzas, E. eta Diaz Noci, J. (1996): *Periodismo y argumentación. Géneros de opinión*, Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, Bilbo.
- Azpilicueta, J.A. (2000): *La tira cómica humorística en prensa. Análisis de la evolución de una serie de 250 tiras de publicación semanal* [Tesia], Euskal Herriko Unibertsitatea, Leioa.

- Azpilicueta, J.A. eta Domenech, J.M. (2005): «XXI. mendeko marrazkigileak Nafarroako prentsan», in *Entziklopedia Enblematikoa*, II, 198-207.
- Barrero, M. (2002): «Zulet» [Fitxa], *Tebesofera*, <<https://www.tebesofera.com/1/Autor/Humorista/Zulet/Jesus.htm>> (Kontsulta: 2019-08-23).
- Berria (2010): «Deontologia», in *Estilo liburuua*, <<http://www.berria.eus/estiloliburuua/eliburuua/deontologia>> (Kontsulta: 2016-07-13).
- Bleiberg, G. eta Mariás, J. (1964): «Humorismo», in *Diccionario de Literatura Española*, Revista de Occidente, Madril, 399-400.
- Castañeda, A. (2013): «Komiki digitala hezkuntza demokratikorako: gerturatzeko deskriptiboa Espainiako legebiltzar autonomikoen webgunetako komiki didaktikoei», *Ikasnarab 2014 – Open education and technology*, akta-liburuua, 277-288, <<http://ikasnarab.com/papers/wp-content/uploads/2014/12/AitorCastaneda.pdf>> (Kontsulta: 2019-10-29).
- , (2018): «Reporting on terror. Analysis of the use of infographics in news on the Barcelona terror attacks of 17 August, 2017, by print newspapers from the Basque Autonomous Community», *Revista Latina de Comunicación Social*, 73, 662-687, <DOI: 10.4185/RLCS-2018-1275en>.
- Castañeda, A. eta Pineda-Martínez, P. (2016): «The promotion of democracy in political cartoons. The themes of cartoons in the Basque newspaper Egin (1977)», *Revista Latina de Comunicación Social*, 71, 232-248, <DOI: 10.4185/RLCS-2016-1093en>.
- CIES (2017): *Estudio de la Audiencia de Medios de Comunicación en la C. A. de Euskadi y Navarra* [on line], <<http://www.ciessl.com/audienciamedios.htm#top>> (Kontsulta: 2019-08-23).
- Conde, J.L. (2005): *El humor gráfico en España. La distorsión internacional*, Asociación de Prensa de Madrid.
- Deia.eus (2017). «Los primeros 40 años de Deia». Editoriala, urtarrilak 2, <<http://www.deia.eus/2017/01/02/opinion/editorial/los-primeros-40-anos-de-deia?random=653811>> (Kontsulta: 2018-01-20).
- Diaz Noci, J. (1990a): «Abdón Alaiza: un alavés artifice del primer cómic vasco», *Kultura*, 2, 111-117.
- , (1990b): «“Txistu”, euskarazko lehen komiki-aldizkaria», *Jakin*, 60, 55-64, <<http://goo.gl/zF259d>> (Kontsulta: 2015-08-17).
- DN – *Diario de Navarra* (2003): «El nacimiento del periódico», *DiarioDeNavarra.es*, erreportajea, otsailak 2, <<https://web.archive.org/web/20071209125420/http://www.diariodenavarra.es/centenario/seccion.asp?id=historia>> (Kontsulta: 2019-10-29).
- Dube, J. (2000): «Online Storytelling forms», *CyberJournalist.net, The Media Center*, <<http://goo.gl/bZhXXY>> (Kontsulta: 2016-08-05).
- EHE – Euskal Hirigune Elkargoa (d/g): *L'institution*, <<https://www.communaute-paysbasque.fr/eu/euskal-hirigune-elkargoa/lurraldea/translate-to-basque-linstitution>> (Kontsulta: 2019-08-23).
- Eco, U. (2011): «Lo cómico y la regla» (obra originala 1980an argitaratua). Ignoria, <<https://goo.gl/eh3Xk>> (Kontsulta: 2017-02-21).
- Entrialgo, M. (2011): «Diario de un taller de humor gráfico e historieta costumbrista», *Arbor. Ciencia, Pensamiento y Cultura*, 170, 275-283.
- FBF – Fernando Buesa Fundazioa (2015): *Bakearen aldeko eta biolentziaren aurkako binetak (1977-2002)*, <<https://goo.gl/hX2853>> (Kontsulta: 2017-02-23).
- Fernández de la Vega, C. (2002): *O segredo do humor*, II. ed., La Voz de Galicia.

- FIG – Festival Internacional de Grabado (2017): FIG Bilbao 2017 [Erakusketa-katalogoa], <<https://www.kulturklik.euskadi.eus/ekitaldia/2017042711165883/fig-bilbao-2017-nazioarteko-grabatu-jaialdia/kulturklik/eu/z12-detalle/eu/adjuntos/catalogoFIG017.pdf>> (Kontsulta: 2019-08-23).
- Fundación Dialnet (2019): «Humor gráfico prensa» [bilaketa], *Dialnet*, <https://dialnet.unirioja.es/buscar/documentos?querysDismax.DOCUMENTAL_TODO=Humor+gr%C3%A1fico+prensa> (Kontsulta: 2019-08-23).
- Getxo [Aula de Cultura] (2005): «El Salón del Cómic de Getxo homenaje al dibujante bilbaíno Olmo y a la librería “Tótem”» [prentsa-oharra], *IV Salón del Cómic de Getxo*, <<https://web.archive.org/web/20071025195215/http://www.getxo.net/cas/cult/pags/comic2.htm>> (Kontsulta: 2019-08-23).
- GFA – Gipuzkoako Foru Aldundia (1998): «Antton Olariaga», in *Euskara Gipuzkoan* [webgunea], <<http://goo.gl/50EdZk>> (Kontsulta: 2012-01-03).
- H28 [aldizkaria] (2016): «Lasis eta Gentlements», *H28 hilabetekari saretirikoa*, 2, <<http://goo.gl/YvW7eC>> (Kontsulta: 2016-08-05).
- Joubert, L. (2002): *Tratado de la risa* (obra originala 1579an argitaratua), Asociación Española de Neuropsiquiatría
- Kowsar, N. (2012): «Being funny is not that funny: contemporary editorial cartooning in Iran», *Social Research. Politics and Comedy*, 79, 117-144, <<http://www.jstor.org/stable/23350301>> (Kontsulta: 2016-02-21).
- La Información (2008): *Conoce nuestro grupo*, <<https://www.lainformacion.es/html/index.html>> (Kontsulta: 2019-10-29).
- La Rép des Pyrenées (2019): *Qui sommes nous*, <<https://www.larepubliquedespyrenees.fr/qui-sommes-nous>> (Kontsulta: 2019-08-23).
- Larrondo, A. (2007): «The challenge of online journalistic language to narrative forms: the special report. Case study on Spanish press websites», *Zer – English edition*, 41-61, <<https://goo.gl/KbqyM8>> (Kontsulta: 2016-08-05).
- Lorente, E. (2015): «Mirar al sesgo. El humor gráfico de Olariaga y Eguillor en la primera época del diario EGIN», in *El humor y la ironía como armas de combate*, Renacimiento, Sevilla, 530-552.
- MECD – Minist. de Educación, Cultura y Deporte (Gob. de España) (2019), «Humor gráfico» [bilaketa], *Teseo*, <<https://www.educacion.gob.es/teseo/listarBusqueda.do;jsessionid=7D5FAAC877ADC4C4099C8F93623B7396>> (Kontsulta: 2019-08-23).
- Mugarari [kultura-ataria] (2019): «Unai Iturriaga firmará como “Zugazart” la viñeta que hasta jubilarse dibujaba el histórico “Tasio” en Gara», *Mugarari Kultura*, <<http://mugarari.info/2019/06/03/unai-iturriaga-firmara-zugazart-la-vineta-jubilarse-dibujaba-tasio-gara>> (Kontsulta: 2019-08-24).
- Mujika, G. (1925): *Pernando Amezketarra. Bere ateraldi ta gertaerak*, Iñaki Deuna, <<http://klasikoak.armiarma.eus/idazlanak/M/MujikaPernando.htm>> (Kontsulta: 2016-07-08).
- Naiz [Irratia] (2019): «Agur Tasio, kaixo Zugazart! Unai Iturriaga erronka berriari ekiteko prest» [Irratsaioa], ekainak 3, <<https://www.naiz.eus/es/mediateca/audio/agur-tasio-kaixo-zugazart-unai-iturriaga-erronka-berriari-ekiteko-prest>> (Kontsulta: 2019-08-23).
- Oroz, C. (d/g): *La tira de Oroz*, <<https://www.la tiradeoroz.es>> (Kontsulta: 2019-08-23).
- Ramírez de la Piscina, T. eta Agirrezaldegi, T. (2009): «Euskaldunon Egunkaria: diario de referencia de la cultura vasca», *Zer*, 26(14), 185-209, <<http://www.ehu.eus/zer/hemeroteca/pdfs/zer26-09-ramirez.pdf>> (Kontsulta: 2017-10-20).
- Richter, J.P. (1812): *Teorías estéticas*, Sociedad General Española de Librería, Madril.

- Soriazu, J. (2019): «30 años sacando “Txispas” a la otra cara de Donostia» [Erreportajea], *El Diario Vasco*, apirilak 23, <<https://www.diariovasco.com/san-sebastian/anos-sacando-txispas-20190423010625-ntvo.html>> (Kontsulta: 2019-08-23).
- Soto, I. (2013): «Ez dezagun iparra galdu» [Iritzi-artikulua], *Le Journal du Pays Basque*, abenduak 21, <<http://www.lejpb.com/edizioa.pdf>> (Kontsulta: 2019-08-23).
- Sousa, J.M. de (2002). *Libro de estilo Vocento, Vocento*.
- Unsain, J.M.^a (1990): *Antecedentes del cómic en Euskadi (1894-1939)*, Ttartalo, Donostia.
- _____ (2004): «El humor gráfico en la prensa de Bilbao y San Sebastián (1865- 1936)», *Ondare*, 23, 599-614, <<http://goo.gl/qS3Epe>> (Kontsulta: 2012-01-03).
- Urra, J. (2007): «Navarra, por ahora, sin Gobierno de cambio», *Hika*, 191, <<http://www.pensamientocritico.org/jesurr0907.htm>> (Kontsulta: 2019-10-29).
- Urteaga, E. (2004): «La mutation de la presse ecrite en Pays Basque», *Eusko Ikaskuntza*, 49, 435-479, <<http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/riev/49435479.pdf>> (Kontsulta: 2016-07-13).
- Valero-Sancho, J.L. (2001): *La infografía: técnicas, análisis y usos periodísticos*, Aldea Global (9), Universitat Autònoma, Bartzelona.
- Zumalakarregi [Museoa] (2004): *XIX. Mendea karikaturetan. Umorea, distortsioa eta kritika soziala* [erakusketa-katalogoa], Gipuzkoako Foru Aldundia, Ormaiztegi.

